

### IKASLEEN GURASOEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

---

#### *Ikasleen gurasoen eskubideak*

Gurasoek, ikasleen eta Kooperatibaren eskola-zerbitzuen jasotzaileen legezko ordezkariak diren aldetik eta bazkide gisa dituzten eskubideen murrizketarik gabe, **honako eskubide hauek** dauzkate:

- a) Beren seme-alabek heziketa integral bat jaso ahal izatea, hark beren ikaskuntzaren eta prestakuntzaren protagonista bihurtzen dituela, Kooperatibaren izaera propioarekin eta haren gizarte-xedearekin bat, ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan jasotzen den bezala.
- b) Ikastetxearen funtzionamendua ezagutzea oro har, eta, era espezifikoan, beren seme-alabak eskolatuta dauden mailetan eta taldeetan.
- c) Harremana edukitzea Tutoreekin eta Irakasleekin, beren seme-alaben prestakuntza integralean laguntzeko, elkarrizketaz eta komunikazio-sistemaz osatutako programaren barruan, eta informazioa jasotzea beren seme-alaben bilakaera akademikoaz eta eskolako martxaz, haien errendimenduaz eta jokaeraz, eta haien prestakuntzari eragin diezaioketen gaiez edo egoerez.
- d) Informazioa jasotzea, aldez aurretik, beren seme-alabek ohiko eskola-esparrutik kanpo egingo dituzten jarduera osagarriez (irteerak, bisitaldiak, egonaldiak, etab.).
- e) Dagozkion eskaerak eta kexuak aurkeztu ahal izatea, idatziz, irakasleei edo Kooperatibako Gobernu Organoei, beren seme-alaben heziketa-prozesuari buruz, eta haiek Kooperatibako edozein jardueratan jasotzen duten arretari eta zainketari buruz, ezarrita dauden bideei eta Zuzendaritzak jarritako arauari jarraituta.
- f) Beren seme-alabak eskolatuta dauden ikasgelako gurasoen ordezkariak hautatzea edo berak hautatuak izatea, eta orobat egitea Eskola Kontseiluko partaidetza-organoan edo indarreko legeriak eskatzen duen partaidetza-organoan.
- g) Kooperatibako gelak erabiltzea, beren seme-alaben heziketa-prozesuak ezagutzeko bilerak egiteko edo prozesuok hobetzeko, aurrez zuzendaritzari jakinarazita.
- h) Kooperatibako instalazioak erabiltzea, haren heziketa-lana eragozten ez duten eskolaz kanpoko jarduerak egiteko, zuzendaritzak aurrez baimenduta, eta Kontseilu Errektoreak ezarritako baldintzetan.
- i) Banantzea edo dibortziaztea gertatuz gero, eta betiere bi gurasoek guraso-agintea atxikitzen dutenean, bazkide izaera gordetzen duen bikotekideak jasotzen dituen

jakinarazpen guztiak jasotzea, honako gai hauen inguruan: semearen edo alabaren emaitza akademikoak, urteko programazioa, zerbitzu osagarriak edo antzekoak, eta, halakorik balitz, ezohiko gastuak ere onartzea.

### ***Ikasleen gurasoen erantzukizunak***

Gurasoek, ikasleen legezko ordezkariak diren aldetik... eta sozietatearen estatutuek bazkide gisa ezartzen dizkieten betebeharez gainera, honako erantzukizun hauek dauzkate:

- a) Beren seme-alaben heziketan dagozkien betebeharrak onartzea, eta, horregatik, Kooperatibako estamentuekin eta talde profesionalekin elkarlanean aritzea, hartan aktiboki parte hartzeko.
- b) Eskolako eta eskolaz kanpoko jardueretarako beren seme-alabek behar dituzten materialak ematea haiei.
- c) Banakako ikaste-zereginak —beren seme-alabei irakasleek jarritako etxeko lanak— egiten direla gainbegiratzea, eta ikasteko ohiturak eta jakintzarekiko gustua hartzen laguntzea beren seme-alabei.
- d) Kooperatibaren Heziketa Proiektuaren edukiekiko eta balioekiko, eta, batik bat, euskararen ezagutzarekiko eta erabilerarekiko jarrera positiboak bultzatzea beren seme-alabengan, bereziki norberaren etsenpluarekin, Proiektuan esplizituki adierazitako helburuen arabera.
- e) Beren seme-alabei eta haien inguruneari buruzko informazioa ematea Tutoreari edo, hala badagokio, Zuzendaritzari, horiek eskola-prozesuan eman beharreko orientabidea eta laguntza errazteko.
- f) Kooperatibako pertsonenganako, estamentuekiko eta taldeekiko errespetua bultzatzea beren seme-alabengan, eta, kritika egitea beharrezkoa izanez gero, hura behar den bidetik egiten irakastea, beti ere pertsonak errespetatzen direla eta haien irakaste-lana aintzat hartzen dela.
- g) Beren seme-alabek eskolako materiala, altzariak eta instalazioak errespetatzen eta ongi erabiltzen ikasteko elkarlanean aritzea Kooperatibarekin, eta, hala badagokio, beren seme-alabek egindako kalteak ordaintzea.
- h) Tutoreek deitutako elkarrizketetara eta, orobat, Zuzendaritzak, etapa-arduradunek edo gurasoen ordezkariak berariaz deitutako bileretara edo informazio-saioretara joatea.
- i) Bisita- eta elkarrizketa-orduak eta -tokiak, sartzeko eta ikasleak jasotzeko ezohiko prozedurak, eta eskola-bizitzaren zein Kooperatibako zerbitzuen funtzionamendu egokirako ezarritako gainerako arauak errespetatzea, eta, bereziki, eskola-orduetan eta eskolaz kanpoko jarduerenetan eskola-moduluetara ez sartzeari, aurretiazko baimenik gabe.

- j) Beren seme-alabak ongi garbituta bidaltzea eskolara, haien gizalegea eta osasun ona zaintzen direla.
- k) Beharrezkoa denean, aurrez abisu ematea eta beren seme-alabek eskolara huts egindako eta berandu heldutako egunen zuribideak aurkeztea tutoreari eta, hala badagokio, Zuzendaritzari, haiek onar ditzaten.
- l) Kooperatibako kide anitzeko organoetan gurasoen ordezkari gisa hautatua izatea onartzea.
- m) Batzar Nagusitik, Kontseilu Errektoretik eta Zuzendaritza taldetik datozen gainerako funtzionamendu-arauak eta -jarraibideak errespetatzea.

### ***Ikasleen gurasoen eta Kooperatibako kide bakarreko organoen arteko harremana***

Tutorearekin edo Etapa Zuzendariarekin elkarrizketa bat nahi izanez gero, zuzendaritza- taldeak urteko programan ezarritako egunetan eta orduetan eskatuko dute bilera gurasoek, honako arau hauei jarraiki:

1. Ikasturtearen hasieran eta aldaketaren bat den guztietan jakinaraziko die zuzendaritza-taldeak bisita- eta elkarrizketa-egutegia gurasoei. Eta telefonoz edo beste edozein moduz komunikatzeko arauak ere jakinaraziko dizkie.
2. Batik bat irakaskuntza- eta pedagogia-funtzioekin lotutako arazoak argituko dituzte Tutoreak eta Etapa Zuzendariak, eta ikasleen bizikidetzarekin eta jokabidearekin lotutakoak ere bai.
3. Beharrezko aurrerapenaz eskatu beharko dituzte gurasoek Tutoreari edo Etapa Zuzendariari egin beharreko bisitak, eta, ahal bada, ohar idatzi baten bidez.

### ***Gertakarien edo jokabide-arazoan aurrean erabili beharreko prozedura***

Ikasleen edozein gertakari edo jokabide-arazo bada eta beren seme-alabei eragiten badie, gurasoek honako prozedura honi jarraituko diote:

1. Lehenik ikasleari esleitutako Tutorearekin hitz egin, arazoa konpontzen saiatzeko.
2. Tutoreak konpontzerik ez badu, Etapa Zuzendariarekin elkarrizketa bat izateko eskaera egin.
3. Etapa Zuzendariak ere konpontzerik ez badu, gurasoek Zuzendaritza Pedagogikora edo Orokorrera jo dezakete, edo sortu den arazoa aztertu behar duen organo espezifikora, aurrez Kooperatibako idazkaritzan eskatuta.